

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Erriberako proiektu eoliko bat, foru intereseko inbertsio izendatu da

*Ablitas, Buñuel, Cabanillas eta Cascanten 5 haize-parke izango ditu eta eraikitze fasean 300 eta ustiapen fasean 59 lanpostu inguru sortzea aurreikusten da*

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Nafarroako Gobernuak Erriberan, guztira 166MW izango dituen, parke eolikoak eraiki eta ustiatzeko ENHOL S.L taldeak proposatutako proiektua foru intereseko inbertsio izendatu du. Hala onartu du gaurko bilkuran.

Zehazki bost haize-parke eraikiko dira: Ablitasen bi, eta Buñuel, Cabanillas eta Cascanten bana, guztira 146 milioi euroko inbertsioarekin. Lanpostuen sorrerari dagokionean, eraikitze eta instalazio fasean 250 eta 300 lanpostu artean sortzea aurreikusi da. Ondoren, 59 pertsona batuko dira ustiaketarako. Lanpostuak zonaldean bertan sortuko dira.

Exekutiboak proiektu honek Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren baitan “Energia berriztagarriak eta baliabideak” arloarekin bat egiten duela iritzi du; eta hala, Energia Planean zehaztutako energia berriztagarrien ekoizpenaren helburuak lortzeko baliogarria da. Gainera, lanpostu kopuruen sorrera nabarmendu ditu, bai eraikitzean zein ustiaketan, lanpostuak sortzeko behar bereziak dituen zonalde batean.

Gogorarazi beharrekoa da Nafarroako Gobernuak foru intereseko inbertsio izendatu ditzakeela Nafarroaren lurralde, gizarte eta garapen ekonomikoan aparteko garrantzia izan dezaketen proiektuak. Izendapen hori lortzen duten egitasmoek ondoren Nafarroako erakunde publikoetan egin beharreko tramitazioetan aurretiazko bultzada izaten dute. Hala, adibidez, ekintza bat ezartzeko zein ejekuzio lizentziak lortzeko edota irekiera eta martxan jartzeko tramitazioak irauten duten denboraren aurrean, proiektu hauek prozezu hori azkarrago gauzaten dute.